

URTEKO LEHEN DERBIA

BI ENTRENATZAILEEN IKUSPEGIA

PARTIDAKO GILTZAK

Mane: «Ahalegin betean ari behar dugu Osasunak ez irabazteko»

Zelaian bezala, markagailuan ere alde handirik ez dela izango dio Balmasedakoak

Jon Rejado | GASTEIZ

Lehen Mailan ez dago talde txiki-rik esaldia *futbola futbola* da esaldiaren pare jartzeko tokian dago jada. Osasunaren kontra norgehiagoka laburtzeko, lehen esaldiaren ildotik mintzatu zen Mane atzoko entrenamendu saioaren ostean, eta Lotinaren taldearen kontra hiru puntuak lortzea oso zaila izango dela argi utzi nahi izan zuen. Gorritxoek jokatu dituzten azken hiru partidak berdintasuna izan dute ardatz nagusi, eta gaurkoa bide beretik joango dela uste du Manek. Hori dela eta, sailkapenari begiratu eta ondorioak hortik ateratzen hastea guztiz zentzugabea dela pentsatzen du Alaveseko teknikariak.

Osasuna oso talde gogorra eta sendoa da atzeko lerroan, eta, hain justu, hor oinarritzen dute jokoa Miguel Angel Lotinaren mutilek. Osasunak normalean horrelako jokoa egiten duen arren, Mendizorrotzan zein aurpegi erakutsiko duen ezin da aurreratu, Maneren irudiko. Nafarrek nola jokatu duten ez jakin arren, Manek uste du Iruñeko taldea baloia ahalik eta denbora gehien kontrolatzen saiatuko dela. Hala ere, Alaves sasoi betean dagoela adierazi du, oporren osteko jarrera ikusita.

Denboraldiko edozein partidatan, alde zuzenetik egindako planteamendu guztiak lehen minutuan bertan behera gelditu daitezke, eta derbietan, hori gertatzeko arrisku handiagoa izaten da. Lehen minutuan sartutako gol batek aste horretan egindako lan taktiko guztia ezerezean utzi dezakeela gogoratu zuen Mane entrenatzaileak, eta Osasunak Rayoren zelaian aurtengo denboraldiko golik goiztiarrena sartu duela azpimarratu zuen. Nolanahi ere, eta hasierako minutuetan gertatzen dena gertatzen dela ere, Alavesek kalitate handiko futbola egin beharko duela aurreratu zuen, bestela nekez lortu ahal izango baitituzte hiru puntuak.

Bestalde, gaurko norgehiagoka jokatzeko egingo dituen aldaketen inguruan irakurketa okerra egin dela adierazi zuen Balmasedako teknikariak. Ivan Alonso uruguaiarrak Ruben Navaroren ordezkari jokatu duela jakinarazi zuenean, hedabideek zigor bat izango dela ulertu zuten, Navarrok ordu txikietan autoarekin izandako istripua dela eta. Hori horrela dela esatea errespetu falta handia dela adierazi zuen entrenatzaile bizkaitarrak, bai entrenatzailearenganako eta baita gainerako jokalarirenganako ere.

Lehia gogorra izango da

Aste honetan bi entrenatzaileek hitz goxoak izan dituzte arerioarekiko.

1 Presioa. Alaves hasieratik bukaerara saiatuko da erritmoa ezartzen, eta horretarako, ezinbestekoa da presioaren bidez Osasunaren jokoa gelditzea.

2 Goiko baloiak. Ivan Alonso aurrelari bezala izanda, atzetik pase luzeak bidaltzeko aukera dago. Osasunaren defentsa apurtzeko giltza izan daiteke uruguaiarra, bikain kontrolatzen baititu talde baloi luzeak.

3 Contrerasen hutsunea. Txiletarrak sendotasuna ematen dio atzealdeari, eta gaur ez du jokatu. Jusuerena izango da erantzukizuna.

4 Argentinaren sasoi. Leonel Gancedok eta Mariano Armentanok hasieratik jokatu dutela dirudi, baina ostiralean egin zuten asteko lehen entrenamendu serioa. Nola erantzuten duten ikusi behar.

Lotina: «Euren jokoa aztertu eta akatsak aurkitu behar ditugu»

Kontrarioaren lana eta jokoa goraipatu zituen atzo Meñakako entrenatzaileak

Asier Legarda-ereño | IRUÑEA

Iragan denboraldian Alavesen aurka jokatuak bi partidetan emandako itxura kaskarra zuzendu nahi du Miguel Anjel Lotinak gaur Mendizorrotzan. «Azken bizpahiru denboraldietan Alaves egiten ari dena oso talde gutxiren esku dago, eta horrexegatik partidu zaila izango dela uste dut; hala ere, nire taldea ondo dago, eta irabazte- ra joango gara. Gainera, iaz, nire ustez denboraldiko partidarik txarrena jokatu genuen Mendizorrotzan, eta Sadarren ere gaizki aritu ginen Alavesen

aurka; itxura hori aldatzea ere polita litzateke», esan zuen meñakarrak atzoko prentsaurrekoan.

Baina horretarako, Alavesek jarriko dizkionak baino eragozpen gehiago ere baditu. Alde batetik, Contreras faltako zaio, gizon garrantzitsua, eta bestetik, argentinarrak nola erantzun dute ezin da jakin. Dena den, Lotina lasai azaldu zuen atzo: «Contreras gizon garrantzitsua da, baina Jusuek jokatu du, eta honek ere behin baino gehiagotan erakutsi du bere maila. Internazionala da, eta partida zail bat baino gehiago irabazi dugu berarekin; aitzakiarik ez da. Hego Amerikako jokalariek bi entrenamendu soilik egin izana ere arazo bat izan daiteke, baina oporraldian entrenatzeari ez diotela utzi esan didate, eta hala bada, ez guke arazorik izan behar. Eta, gainera, zer egingo diogu; nekatzen badira aldatu egin beharko ditugu».

Lasaitasuna izatea garrantzitsua da, baina ez pentsa halere lasaitasun hori arduragabekeria bilakatzeko arriskurik denik. Atzo bertan, Osasunazaleentzat eta jokalarientzat balio dezakeen mezu bat igorri zuen Lotinak: «Iragan denboraldian baino ibilbide hobea daramagu, baina inork ez dezala pentsa horregatik salbatuta gaudenik. Orain bi partida jarraian jokatu beharko ditugu etxetik kanpo, eta aurkariak ere ez dute lo hartzen».

Eta nola ez, Alavesentzako beste laudorio batzuk ere gorde zituen. Lotinaren ustez, «azken partida jokatu ez arren sailkapenaren goialdean jarraitzea esanguratsua da», eta talde batzuk gasteiztarren gogortasuna salatu duten arren, berak partida jokatu aurretik «ezer esaterik ez» duela esan zuen. Manerekiko miresmena ere ez du ezkutatu Lotinak aste honetan; Europako entrenatzaile onenen artean aukeratu zutela jakin zuenean ez zela harritu aitortu zuen: «Ez da harrigarria, iaz bakarrik ez, bizpahiru urte baitaramatza Manek sekulako lana egiten».

Lotinak baieztatu zuenez, Jusue gaztea izango da Contreras txiletarraren ordezkaria hamaikakoan.

JESUS DIEGES / EFE



ESANAK



J.M. ESNAL 'MANE'

(Alaveseko entrenatzailea)

«Osasunaren azken hiru partidak berdintasun handia izan dute»

«Markagailuan alde txikiak

izango dira, zelaian ikusiko diren aldeak horrelakoak izango baitira»

«Oporren ostean jokalariek entrenamenduetan erakutsitako jarrera bikaina izan da»

«Ruben Navarro aulkian geratzea zigortzat hartzea errespetu falta handia da»



MIGEL ANJEL LOTINA

(Osasunako entrenatzailea)

«Iaz, denboraldiko partidarik txarrena jokatu genuen han, eta itxura hobea ematen dugun»

«Gabonetan ere entrenatu direla egia bada, argentinarrak ez dute arazorik izan behar»

«Alaves talde gogorra dela salatu dute batzuek, baina jokatu aurretik nik ez dut ezer esaterik»

«Europako onenen artean aukeratzea ez da harrigarria, lan handia egin du Manek»